

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

3/2023 Foru Agindua, urtarrilaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen baitira honako foru agindu hauek: urtarrilaren 13ko 7/2010, abenduaren 23ko 734/2008, martxoaren 9ko 133/2005, urriaren 24ko 615/2018 eta irailaren 27ko 529/2017, hurrenez hurren onesten dituztenak 181, 196, 198, 280 eta 289 ereduak

Zerga-informazioaren kalitatea hobetzea funtsezko elementu bat da Arabako Foru Aldundiak bere gain dituen laguntza, ikerketa eta kontrol jarduerak eraginkorrak izan daitezzen.

Helburu horrekin, oro har, ekitaldi bakoitzean eguneratu egin behar da informazio betebeharrakin batzuen ondoriozko informazio horniduraren inguruko araudia. Eguneratze hori, aurreko ekitaldian bezalaxe, ahal den neurrian arau berean integratzeko moduan egitea komeni da, zergapekoek egiten diren aldaketen berri izango dutela hobeto bermatzeko.

Horregatik, informazio betebeharren inguruko zerga-informazio hori behar bezala eguneratzeko arau aldaketak jasotzen ditu agindu honek. Ondoren azaltzen dira haren aldaketa nagusiak.

Aginduaren lehenengo apartatuak 181 eredu aldatzen du, eta eremu berri bat sartzen du harremanetan jartzeko pertsonari buruzko informazioa eransteko, bai eta gako berriak ere "Eragiketaren jatorria" eremuan (orain, erregistro diseinuen 172. posizioan dago), ekitaldian egindako eragiketa zehazkiago deskribatzen duten suposizio berriak jasotzeko eta, era horretan, informazioaren kalitatea eta haren kudeaketa hobetzeko zergadunarentzat.

Zehazki, aipatutako eremuan ("Eragiketaren jatorria"), lau gako berri sartzen dira: "K" eta "L" gakoak (jatorrizko erakundeak eta xede-erakundeak, hurrenez hurren, sozietateen bat-egite eta berregituratze eragiketen berri emateko), eta "T" eta "V" gakoak (ekitaldian zehar jatorrizko erakundeak eta xede-erakundeak, hurrenez hurren, izandako eskualdatzeen, subrogazioen eta erakunde aldaketen berri emateko). Alde horretatik, nabarmentzekoa da eremu horietako bat ere ez dela erabili behar zorrak berregituratzeko eragiketak aitortzeko, horiek, aurreko ekitaldian bezalaxe, "M" kodearekin identifikatuko baitira.

Ereduaren erregistro diseinuak eragiketaren jatorrizko gako berrietara egokitzeko, honako eremu hauek ere aldatu dira: "Eragiketaren data"; "Maileguaren, kredituaren edo beste finantza-eragiketa baten zenbatekoa"; "Ekitaldian kapitalaren amortizazio gisa ordaindutako zenbatekoa"; "Ekitaldian interesen kontzeptuan ordaindutako zenbatekoa"; "Ekitaldian besteren finantzaketatik eratorritako gastu gisa ordaindutako zenbatekoa"; "Abenduaren 31n ordaintzeke zegoen saldoa" eta "Ohiko etxebizitzara bideratutako finantzaketaren ehunekoa".

196 eredu agindu honetako bigarren apartatuaren bidez aldatzen da, eta eremu berri bat dauka harremanetarako pertsonari buruzko informazioa eransteko, baita gako berri bat ere, "Alta Gakoa" eremuaren barruan, finantza-erakundearen bat-egite edo sozietate-berregituratze baten ondorioz ekitaldian alta eman zaien kontuak identifikatzeko.

Hirugarren apartatuak 198 eredu aldatzen du, hartako informazioaren kalitatea hobetzeko. Horrela, lehenengo eta behin, aldatu egiten da ereduko "Emandako/hartutako diru-kontentsazioa" eremua, haren edukian zehaztapen bat sartzeko, adieraziz ezen, bereziki, truke-ekuazioa gainditzeagatik, hartutako tituluen akzio oso bat jasotzeko eskubiderik ematen ez duten tituluen salmentaren ondorioz akziodunak jasotako zenbatekoa adierazi behar dela eremu horretan. Era horretan, hobetu egiten da zergadunaren balore zorroari buruzko informazioaren kalitatea. Bigarrenik, "Erakunde aitortzaileko partaidetzaren ehunekoa" eremua ere aldatzen da, 198 ereduko 2. motako erregistro diseinuen 421etik 427ra bitarteko posizioetara aldatzen baita, eremu horren zati hamartarrak hartzen dituen posizioen kopurua handitzeko helburuaz.

280 eredia agindu honetako laugarren apartatuaren bidez aldatzen da, eremu berri bat sartzen da harremanetan jartzeko pertsonaren inguruko informazioa eransteko, baita aldaketa tekniko bat ere haren erregistro diseinuetan, zehazkiago “Epe luzerako aurrezki planaren azkentzea” eremuan, hartzailearen heriotzaren ondorioz azkentzeko kasu berria barne hartzeko.

Azkenean, bosgarren apartatuak 289 eredia aldatzen du, I. eta II. eranskinen edukia eguneratuz informazioa trukatzeko konpromisoa duten estatuen egungo egoeraren arabera, 2022ko ekitalditik aurrera informazioa trukatzeko den estatuak sartzen baitira zerrendan.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da 181, 196, 198, 280 eta 289 ereduei buruzko informazio aitortpenak onetsi zituzten foru aginduak aldatzeko beste foru agindu bat onestea.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak egin duen txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren urtarrilaren 13ko 7/2010 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 181 eredia, ondasun higiezinaren inguruko maileguei, kredituei eta finantza eragiketei buruzko aitortpen informatiboa aurkezteko bete beharrezkoa, bai eta eredu horren ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriaren diseinu fisiko eta logikoak ere.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio urtarrilaren 13ko 7/2010 Foru Aginduari:

Bat. Gehitzen da “HARREMANETARAKO PERTSONAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA” eremuaren azalpena, 206tik 255ra bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 181 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 1 motako erregistroetan (aitortzailearen erregistroa), haren edukia hau da (aldi berean, “ZURIUNEAK” eremuaren posizioak eguneratzen dira):

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
204-205	—	ZURIUNEAK
206-255	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA Harremanetarako pertsonaren posta elektronikoaren helbidea adierazi behar da.
256-487	—	ZURIUNEAK

Bi. Aldatzen da “ERAGIKETAREN XEDEA” eremuaren azalpena, 172 posizioa duena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 181 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuaren erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
172	Alfabetikoa	ERAGIKETAREN XEDEA Eragiketaren xedea adierazten duen gakoa hautatu behar da; hona zerrenda:
		A Eraketa.
		M Aldaketa.
		C Kitapena.
		J Aldaketa eta kitapena aitortpenaren ekitaldian.
		F Aurreko ekitaldietan abiarazitako eragiketak.
		K Bat egiteak eta sozietate berregituratzeak (jatorrizko erakundea).
		L Bat egiteak eta sozietate berregituratzeak (helmugako erakundea).
		T Eskualdatzeak, subrogazioak edo erakunde aldaketak (jatorrizko erakundea).
		V Eskualdatzeak, subrogazioak edo erakunde aldaketak (helmugako erakundea).

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
172	Alfabetikoa	<p>Finantzaketa eragiketa aitortenaren ekitaldian formalizatu bada, "A" gakoa jarri behar da. Gainerako kasu guztietan "F" jarri behar da, eragiketa aldatu eta/edo kitatu ez bada, eta ekitaldian bat egite, sozietate berregituratze, eskualdatze, subrogazio eta erakunde aldaketa kasuak izan ez badira.</p> <p>Ekitaldi batean aitorpenean jasotako finantzaketa eragiketaren datuetako bat aldatzen bada (ondasun higiezinaren xedea barne), eta ez da beharrezkoa beste gako espezifiko bat betetzea, "M" gakoa jarri behar da. Halako kasu honetan erregistro bat egin behar da eragiketa xede bakoitzeko; horrela erakunde aitortzaileak, eragiketa gauzatzeko moduaren arabera, hauxe jarri behar du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "A" edo "F" gakoa: erregistroa(k) eragiketaren hasierako baldintzen arabera bete behar d(ir) a eta urtarrilaren 1etik eragiketa aldatu arte ordaindutako zenbatekoak zehaztu behar dira. Kasu honetan ez dago ezar jarri beharrik "Abenduaren 31ko saldoa" eremuan. • "M" gakoa: erregistroa(k) eragiketaren baldintza berrien arabera bete behar d(ir) a eta aldaketa egunetik abenduaren 31ra arte ordaindutako zenbatekoak zehaztu behar dira (eragiketa kitatu ez bada). <p>Epealdian aitorpenean jasotako eragiketa kitatzen bada, "C" gakoa jarri behar da eta ez da beharrezkoa beste gako espezifiko bat betetzea. Kasu honetan erregistro(et) an epealdiaren hasieratik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoak zehaztu behar d(ir) a.</p> <p>Ekitaldian aldaketa eragiketa bat eta kitapen eragiketa bat gertatu badira, hauxe jarri behar da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "A" edo "F" gakoa: erregistroa(k) eragiketaren hasierako baldintzen arabera bete behar dira eta urtarrilaren 1etik eragiketa aldatu arte ordaindutako zenbatekoak zehaztu behar d(ir) a. Kasu honetan ez dago ezar jarri beharrik "Abenduaren 31ko saldoa" eremuan. • "J" gakoa: erregistro(et) an aldaketa egunetik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoak zehaztu behar d(ir) a. Kasu honetan ez dago ezar jarri beharrik "Abenduaren 31ko saldoa" eremuan. <p>Ekitaldian bat egitea eta/edo sozietate berregituratzea gertatzen bada ("K" eta "L" gakoak), honako hauek adieraziko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "K" gakoa: jatorrizko erakundeak edo xurgatuak beteko du gako hau. <p>Erregistroa(k) bat egite edo sozietate berregituratze egunera arte dagozkien zenbatekoekin beteko d(ir) a. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango "ABENDUAREN 31KO SALDOA" eremua betetzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • "L" gakoa: helmugako erakundeak edo xurgatzaileak beteko du gako hau. <p>Erregistroa(k) bat egite edo sozietate berregituratze egunetik abenduaren 31 arte dagozkien zenbatekoekin beteko d(ir) a, salbu eta lehenago kitatzen ez badira.</p> <p>Baldin eta beste erakunde bati eskualdatu, subrogatu edo kreditua aldatzen bazaio ("T" eta "V" gakoak), honako hau adieraziko da ekitaldian:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "T" gakoa: jatorrizko erakundeak, eskualdatzaileak edo maileguaren lagatzaileak beteko du gako hau. <p>Erregistroa(k) eskualdatze, subrogazio edo beste erakunde bati aldatzen zaion egunera arte zordunak ordaindutako zenbatekoekin beteko d(ir) a. Zenbateko horretan ez da inola ere sartuko ezohiko azken amortizazioari dagokiona, hau da, xede erakundeak zorra kitatzeko ordaindutako kopuruari dagokiona. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango "ABENDUAREN 31KO SALDOA" eremua betetzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • "V" gakoa: helmugako erakundeak edo maileguaren lagatzaileak beteko du gako hau. <p>Erregistroa(k) eskualdatze, subrogazio edo beste erakunde bati aldatzen zaion egunetik abenduaren 31 arte dagozkien zenbatekoekin beteko d(ir) a, salbu eta lehenago kitatzen ez badira.</p> <p>Eremu hori ez da beteko ondasun higiezin bat erostera EZ bideratutako finantzatze eragiketetan (abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena, atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra jasotzeko) eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen gainean; hau da, ez da beteko "ERAGIKETAREN AZPIGAKOA" eremuaren balioa "5" denean.</p>

Hiru. Aldatzen da "ERAGIKETA DATA" eremuaren azalpena, 103tik 110ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 181 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuaren erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
103-110	Zenbakizkoa	ERAGIKETA DATA Mailegu, kreditu edo bestelako finantzaketa eragiketaren eraketa edo aldaketa eguna zehaztu behar da. Eremu honetan hiru atal daude:
		103-106 Zenbakizkoa URTEA
		107-108 Zenbakizkoa HILA
		109-110 Zenbakizkoa EGUNA
		Kitapen eragiketetan ("ERAGIKETAREN XEDEA" eremuan "C" jarrita), eremu honetan mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa eratu den data zehaztu behar da. Salbuespena: eratu ondoren aldaketa eragiketa bat egin bada, aldaketaren data adierazi behar da. Aitorpenaren ekitaldian egindako aldaketa eta kitapen eragiketetan ("ERAGIKETAREN XEDEA" eremuan "J" jarrita), eremu honetan mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa aldatu den data zehaztu behar da. Aitorpenaren xede den ekitaldiko bat egite eta sozietate berregituratze eragiketetan ("ERAGIKETAREN XEDEA" eremua, "K" edo "L" balioarekin), bai eta eskualdatze, subrogazio edo erakunde aldaketen kasuetan ere ("ERAGIKETAREN XEDEA" eremua, "T" edo "V" balioarekin), erakunde aitortzaileak hasierako mailegua emateko eragiketaren data adieraziko du (jatorrizko erakundearen aitortzen zena).

Lau. Aldatzen da "MAILEGU, KREDITU ETA BESTELAKO FINANTZA ERAGIKETEN ZENBATEKOA" eremuaren azalpena, 114tik 126ra bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 181 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuaren erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
114-126	Zenbakizkoa	MAILEGU, KREDITU ETA BESTELAKO FINANTZA ERAGIKETEN ZENBATEKOA Mailegu, kreditu edo bestelako finantza eragiketa bakoitzaren zenbatekoa adierazi behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe. Zenbatekoak EUROtan eman behar dira. Eremu honetan bi atal daude:
		114-124 Mailegu, kreditu edo bestelako finantza eragiketaren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.
		125-126 Mailegu, kreditu edo bestelako finantza eragiketaren zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.
		Mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa hainbat aitorturi badagokie, zenbatekoa EZ da lainduko haien artean. "ERAGIKETAREN GAKOA" eremuan "M" edo "J" bada eta finantzaketaren zenbatekoa gehitu bada, eragiketaren guztirako zenbatekoa adierazi behar da, hau da, hasierako zenbatekoaren eta gehikuntzaren batura. Baldin eta "ERAGIKETAREN GAKOA" eremuan "V" gako adierazi bada, eskualdatzeagatik, subrogazioagatik edo erakunde aldatzeagatik, eta maileguaren baldintzak aldatu badira eta horrek zenbatekoa aldatzen badu, eragiketarik ateratzen den zenbateko osoa beteko da. Eremu hori ez da beteko ondasun higiezin bat erostera EZ bideratutako finantzatze eragiketetan (abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena, atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra jasotzeko) eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen gainean; hau da, ez da beteko "ERAGIKETAREN AZPIGAKOA" eremuaren balioa "5" denean.

Bost. Aldatzen da "KAPITALA AMORTIZATZEKO EKITALDIAN ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA" eremuaren azalpena, 127tik 139ra bitarteko posizioak dituena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 181 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuaren erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
127-139	Zenbakizkoa	KAPITALA AMORTIZATZEKO EKITALDIAN ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA Ekitaldian, edo eragiketa aldatu arte, kapitala amortizatzeako ordaindutako zenbatekoa adierazi behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe. Zenbatekoak EUROtan eman behar dira. Eremu honetan bi atal daude:
		127-137 Ekitaldian kapitala amortizatzeako ordaindutako zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.
		138-139 Ekitaldian kapitala amortizatzeako ordaindutako zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.
		Mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa hainbat aitorturi badagokie, zenbatekoa EZ da lainduko haien artean. "Eragiketaren xedea" eremuan "M" gakoa jarri bada, aldaketa egunetik ekitaldia amaitu arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da. "Eragiketaren xedea" eremuan "J" gakoa jarri bada, aldaketa egunetik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da, kitapenean ordaindutako kopurua barne. "Eragiketaren xedea" eremuan "C" gakoa jarri bada, epealdiaren hasieratik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da, kitapenean ordaindutako kopurua barne. "Eragiketaren xedea" eremuan "K" gakoa adierazten denean bat egiteagatik edo sozietate berregituratzeagatik, jatorrizko erakundeak edo xurgatuak zergaldiaren hasieratik bat egitearen edo sozietate berregituratzearen egunera arte ordaindutako zenbatekoa adieraziko du. "Eragiketaren xedea" eremuan "L" gakoa adierazten denean bat egiteagatik edo sozietate berregituratzeagatik, helmugako erakundeak edo xurgatzaileak bat egitearen edo sozietate berregituratzearen egunetik ekitaldiaren amaierara arte ordaindutako zenbatekoa adieraziko du. "Eragiketaren xedea" eremuan "T" gakoa adierazten denean eskualdatzeagatik, subrogazioengatik edo erakunde aldaketengatik, zergaldiaren hasieratik eskualdatze, subrogazio edo erakunde aldaketaren egunera arte ordaindutako zenbatekoa adieraziko da. Zenbateko horretan ez da inola ere sartuko ezohiko azken amortizazioari dagokiona, hau da, xede erakundeak zorra kitatzeko ordaindutako kopuruari dagokiona. "Eragiketaren xedea" eremuan "V" gakoa adierazten denean eskualdatzeagatik, subrogazioengatik edo erakunde aldaketengatik, eskualdatze, subrogazio edo erakunde aldaketaren egunetik ekitaldiaren amaierara arte ordaindutako zenbatekoa adieraziko da. Eremu hori ez da beteko ondasun higiezin bat erostera EZ bideratutako finantzatze eragiketetan (abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena, atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra jasotzeko) eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen gainean; hau da, ez da beteko "ERAGIKETAREN AZPIGAKOA" eremuaren balioa "5" denean.

Sei. Aldatzen da "EKITALDIAN ORDAINDUTAKO KORRITUAK" eremuaren azalpena, 140tik 152ra bitarteko posizioak dituena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 181 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuaren erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
140-152	Zenbakizkoa	EKITALDIAN ORDAINDUTAKO KORRITUAK Ekitaldian edo eragiketa aldatu arte, ordaindutako korrituen zenbatekoa adierazi behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe. Zenbatekoak EUROtan eman behar dira. Eremu honetan bi atal daude:
		140-150 Ekitaldian ordaindutako korrituen zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.
		151-152 Ekitaldian ordaindutako korrituen zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.
		Mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa hainbat aitorturi badagokie, zenbatekoa EZ da lainduko haien artean. "Eragiketaren xedea" eremuan "M" gakoa jarri bada, aldaketa egunetik ekitaldia amaitu arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da. "Eragiketaren xedea" eremuan "J" gakoa jarri bada, aldaketa egunetik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da. "Eragiketaren xedea" eremuan "C" gakoa jarri bada, epealdiaren hasieratik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da.

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
140-152	Zenbakizkoa	<p>“Eragiketaren xedea” eremuan “K” gakoa adierazten denean bat egiteagatik edo sozietate berregituratzeagatik, jatorrizko erakundeak edo xurgatuak zergaldiaren hasieratik bat egitearen edo sozietate berregituratzearen egunera arte ordaindutako zenbatekoa adieraziko du.</p> <p>“Eragiketaren xedea” eremuan “L” gakoa adierazten denean bat egiteagatik edo sozietate berregituratzeagatik, helmugako erakundeak edo xurgatzaileak bat egitearen edo sozietate berregituratzearen egunetik ekitaldiaren amaierara arte ordaindutako zenbatekoa adieraziko du.</p> <p>“Eragiketaren xedea” eremuan “T” gakoa adierazten denean eskualdatzeengatik, subrogazioengatik edo erakunde aldatetengatik, zergaldiaren hasieratik eskualdatze, subrogazio edo erakunde aldatetaren egunera arte ordaindutako zenbatekoa adieraziko da.</p> <p>“Eragiketaren xedea” eremuan “V” gakoa adierazten denean eskualdatzeengatik, subrogazioengatik edo erakunde aldatetengatik, eskualdatze, subrogazio edo erakunde aldatetaren egunetik ekitaldiaren amaierara arte ordaindutako zenbatekoa adieraziko da.</p> <p>Eremu hori ez da beteko ondasun higiezin bat erostera EZ bideratutako finantzatzeko eragiketetan (abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena, atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra jasotzeko) eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen gainean; hau da, ez da beteko “ERAGIKETAREN AZPIGAKOA” eremuaren balioa “5” denean.</p>

Zazpi. Aldatzen da “BESTEREN FINANTZAKETAREN ONDORIOZ EKITALDIAN ORDAINDU-TAKO ZENBATEKOA” eremuaren azalpena, 153tik 165ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 181 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuaren erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
153-165	Zenbakizkoa	<p>BESTEREN FINANTZAKETAREN ONDORIOZ EKITALDIAN ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA</p> <p>Ekitaldian, edo eragiketa aldatu arte, besteren finantzaketaren ondorioz izan diren gastuen zenbatekoa adierazi behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe.</p> <p>Zenbatekoak EUROtan eman behar dira.</p> <p>Eremu honetan bi atal daude:</p>
		<p>153-163</p> <p>Ekitaldian besteren finantzaketaren gastuengatik ordaindutako zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p>
		<p>164-165</p> <p>Ekitaldian besteren finantzaketaren gastuengatik ordaindutako zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p>
		<p>Mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa hainbat aitorturi badagokie, zenbatekoa EZ da lainduko haien artean.</p> <p>“Eragiketaren xedea” eremuan “M” gakoa jarri bada, aldaketa egunetik ekitaldia amaitu arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da.</p> <p>“Eragiketaren xedea” eremuan “J” gakoa jarri bada, aldaketa egunetik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da.</p> <p>“Eragiketaren xedea” eremuan “C” gakoa jarri bada, epealdiaren hasieratik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da.</p> <p>“Eragiketaren xedea” eremuan “K” gakoa adierazten denean bat egiteagatik edo sozietate berregituratzeagatik, jatorrizko erakundeak edo xurgatuak zergaldiaren hasieratik bat egitearen edo sozietate berregituratzearen egunera arte ordaindutako zenbatekoa adieraziko du.</p> <p>“Eragiketaren xedea” eremuan “L” gakoa adierazten denean bat egiteagatik edo sozietate berregituratzearen egunetik ekitaldiaren amaierara arte ordaindutako zenbatekoa adieraziko du.</p> <p>“Eragiketaren xedea” eremuan “T” gakoa adierazten denean eskualdatzeengatik, subrogazioengatik edo erakunde aldatetengatik, zergaldiaren hasieratik eskualdatze, subrogazio edo erakunde aldatetaren egunera arte ordaindutako zenbatekoa adieraziko da.</p> <p>“Eragiketaren xedea” eremuan “V” gakoa adierazten denean eskualdatzeengatik, subrogazioengatik edo erakunde aldatetengatik, eskualdatze, subrogazio edo erakunde aldatetaren egunetik ekitaldiaren amaierara arte ordaindutako zenbatekoa adieraziko da.</p> <p>Eremu hori ez da beteko ondasun higiezin bat erostera EZ bideratutako finantzatzeko eragiketetan (abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena, atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra jasotzeko) eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen gainean; hau da, ez da beteko “ERAGIKETAREN AZPIGAKOA” eremuaren balioa “5” denean.</p>

Zortzi. Aldatzen da “ABENDUAREN 31KO SALDOA” eremuaren azalpena, 208tik 219ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 181 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuaren erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
208-219	Zenbakizkoa	ABENDUAREN 31KO SALDOA “A”, “B”, “C” edo “D” gakoak duten eragiketetan, maileguaren, kredituaren edo bestelako finantza eragiketaren abenduaren 31ko saldoa adierazi behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe. Zenbatekoa EUROtan eman behar da. Mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa hainbat aitorturi badagokie, saldoa EZ da lainduko haien artean. Kasu honetan ez da jarri behar ezer: eragiketaren xedearen gakoa “A” edo “F” bada eta aitortuaren ekitaldian eratu ondoren aldatu bada. Halaber, eragiketaren xedeari “C” edo “J”, “K” edo “T” gakoa badagokio, ez da ezer adierazi behar eremu honetan. Eremu honetan bi atal daude:
		208-217 Abenduaren 31ko saldoaren zati osoa.
		218-219 Abenduaren 31ko saldoaren zati hamartarra.

Bederatzi. Aldatzen da “OHIKO ETXEBIZITZA EROSTeko ERABILITAKO FINANTZAKETAREN EHUNEKOA” eremuaren azalpena, 458tik 462ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 181 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuaren erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
458-462	Zenbakizkoa	OHIKO ETXEBIZITZA EROSTeko ERABILITAKO FINANTZAKETAREN EHUNEKOA “ERAGIKETAREN AZPIGAKOA” 1 bada (174. posizioa), eta kasu horretan soilik, jasotzailearen ohiko etxebizitza erosteko erabilitako finantzaketaren ehunekoa zehaztu behar da (aitortuak adierazitakoaren arabera). Beraz, jasotzaileak finantzaketatik bere ohiko etxebizitza erosteko erabili duen zatiaren ehunekoa zehaztu behar da, hau da, haren partaidetza ehunekoa (halakorik egonez gero).
		Eremu honetan bi atal daude:
		458-460 Zenbakizkoa Zati osoa: ehunekoaren zati osoa jarri behar da.
		461-462 Zenbakizkoa Zati hamartarra: ehunekoaren zati hamartarra jarri behar da.
		Mailegu, kreditu edo bestelako finantzaketa eragiketaren zenbateko osoa (bere partaidetza ehuneko guztia) erabili badu ohiko etxebizitza erosteko, 100 jarri behar da zati osoan eta 00 hamartarrean. “ERAGIKETAREN XEDEA” adierazten duen gakoa “M” edo “J” bada eta finantzaketaren zenbatekoa gehitu bada, ohiko etxebizitza erosteko erabilitako finantzaketa zatiaren ehunekoa kalkulatzeko gehikuntza gertatu denean amortizatu gabe egon den kapitala eta gehikuntzaren ondokoa hartuko dira kontuan. “ERAGIKETAREN XEDEA” eremuan “V” gakoa adierazten denean, eta maileguaren baldintzak aldatzen badira eta horrek zenbatekoa aldatzen badu, ohiko etxebizitzara bideratutako finantzaketa ehunekoa honela kalkulatu da: subrogazioa edo erakunde aldaketa gertatzen den unean amortizatu gabe dagoen saldoa (aldaketaren edo subrogazioaren gastuak barne) zati erakunde berriak emandako maileguaren zenbatekoa.

Bigarrena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren abenduaren 23ko 734/2008 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 196 eredua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, Sozietateen gaineko Zergarena eta Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena (establezimendu iraunkorrak). Atxikipenak eta konturako diru sarrerak, kapital higigarrien etekinen gainekoak eta mota guztietako finantza erakundeetako kontuetatik datozen kontra-prestazioen ondorioz lortzen diren errenten gainekoak, finantza aktiboen gaineko eragiketetan, baimendutako pertsonen urteko informazio aitortuaren eta finantza erakundeek kontuetan dituzten saldoetan oinarritutakoak barne.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio abenduaren 23ko 734/2008 Foru Aginduari:

Bat. Gehitzen da “HARREMANETARAKO PERTSONAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA” eremuaren azalpena, 176tik 225ra bitarteko posizioak dituena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 196 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 1 motako erregistroetan (aitortzailearen erregistroa), haren edukia hau da (aldi berean, “ZURIUNEAK” eremuaren posizioak eguneratzen dira):

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
176-225	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA Harremanetarako pertsonaren posta elektronikoaren helbidea adierazi behar da.
226-500	—	ZURIUNEAK

Bi. Aldatzen da “ALTAREN GAKOA” eremuaren azalpena, 124 posizioa duena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 196 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuaren erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA	
124	Zenbakizkoa	ALTAREN GAKOA Gako hauetako bat jarriko da:	
		Gakoa	Deskripzioa
		0	Lehenko kontua.
		1	Aitorpenaren ekitaldian ireki den kontua.
		2	Aitorpenaren ekitaldian kitatu den kontua.
		3	Aitorpenaren ekitaldian ireki eta kitatu den kontua.
		4	Aitorpenaren ekitaldian izaeraz aldatu eta titular egoiliar batena izatera pasatu den kontua.
		5	Aitorpenaren ekitaldian izaeraz aldatu eta titular ez-egoiliar batena izatera pasatu den kontua.
6	Aitorpenaren ekitaldiko alta kontua, finantza erakundea beste batekin bat egiteagatik edo berregituratzeagatik.		

Hiru. Aldatzen da “ALTAREN GAKOA” eremuaren azalpena, 124 posizioa duena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 196 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (baimenduaren erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA	
124	Zenbakizkoa	ALTAREN GAKOA Gako hauetako bat idatzi behar da:	
		Gakoa	Deskripzioa
		0	Kontu zaharra.
		1	Aitorpenaren ekitaldian altan egon den kontua.
		2	Aitorpenaren ekitaldian kitatu den kontua.
		3	Aitorpenaren ekitaldian alta eman eta kitatu den kontua.
6	Aitorpenaren ekitaldiko alta kontua, finantza erakundea beste batekin bat egiteagatik edo berregituratzeagatik.		

Hirugarrena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 9ko 133/2005 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 198 eredua, finantza aktiboekin eta beste balore higikor batzuekin egindako eragiketen urteko aitorpenarena, bai eta haren barruko orrien ordezkari gailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarria erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio martxoaren 9ko 133/2005 Foru Aginduari:

Bat. Aldatzen da “EMANDAKO/HARTUTAKO DIRU KONPENTSATZIOA” eremuaren azalpena, 348tik 360ra bitarteko posizioak dituena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuaren erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA	
348-360	Alfanumerikoa	EMANDAKO/HARTUTAKO DIRU KONPENTSATZIOA “ERAGIKETA GAKOA” eremuan (134 posizioan) “V”, “Y” edo “Z” gakoa jartzen denean, hartan emandako edo jasotako diru konpentsazioaren zenbatekoa jarri behar da, hala badagokio. Eremu horretan, bereziki, truke ekuazioa gainditzen duten titulu salmentaren ondorioz akziodunak jasotako zenbatekoa jasoko da, baldin eta titulu horiek ez badute eskubiderik ematen jasotako tituluak akzio oso bat jasotzeko (“PIKOEN SALMENTA”). Eremu hau honakoetan banatzen da:	
		348	Kompentsazioaren zeinua: Bakarrak “N” balioarekin idatziko da, aitortuak emandako diru konpentsazioak direnean.
		349-358	Emandako edo jasotako diru konpentsazioaren zenbatekoaren zati osoa.
		359-360	Emandako edo jasotako diru konpentsazioaren zati hamartarra Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

Bi. Aldatzen da “PARTAIDETZAREN PORTZENTAJEA ERAKUNDE AITORTZAILEAN” eremuaren azalpena, 271tik 275ra bitarteko posizioak dituena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuaren erregistroa), eta 421-427 posizioetan ezarriko da, haren edukia hau da (aldi berean, “ZURIUNEAK” eremuaren posizioak eguneratzen dira):

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA	
271-275	—	ZURIUNEAK	
421-427	Numerikoa	PARTAIDETZAREN PORTZENTAJEA ERAKUNDE AITORTZAILEAN 2. motako erregistroaren 134 posizioan (“ERAGIKETA GAKOA”) “H” edo “I” gakoa betetzen denean, kapitala murrizten duen edo jaulkipen prima itzultzen duen erakundearen aitortuak duen partaidetzaren portzentajea jarriko da. Bi eremutan banatuta dago:	
		421-423	Portzentajearen zati osoa idatzi behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.
		424-427	Portzentajearen zati hamartarra idatzi behar da. Edukirik ez badu, zeroz bete behar da.
428-500	—	ZURIUNEAK	

Laugarrena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren urriaren 24ko 615/2018 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 280 eredua, epe luzerako aurrezki planen urteko aitorten informatiboari buruzkoa, bai eta haren barruko orrien ordeztu ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarria erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio urriaren 24ko 615/2018 Foru Aginduari:

Bat. Gehitzen da “HARREMANETARAKO PERTSONAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA” eremuaren azalpena, 185tik 234ra bitarteko posizioak dituena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 280 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 1 motako erregistroetan (aitortzailearen erregistroa), haren edukia hau da (aldi berean, “ZURIUNEAK” eremuaren posizioak eguneratzen dira):

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
185-234	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA Harremanetarako pertsonaren posta elektronikoaren helbidea adierazi behar da.
235-487	—	ZURIUNEAK

Bi. Aldatzen da “EPE LUZERAKO AURREZKI PLANAREN IRAUNGITZEA” eremuaren azalpena, 137 posizioa duena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 280 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuaren erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENEA
137	Numerikoa	EPE LUZERAKO AURREZKI PLANAREN IRAUNGITZEA Epe luzerako aurrezki plana ekitaldian iraungitzekotan, ondoko gako hauetako bat jarri beharko da:
		1 Epe luzerako aurrezki plana iraungitzea bertan sartutako zenbatekoen hura ireki zenetik 5 urte igaro baino lehenago baliatzeagatik, edo PFEZari buruzko Foru Arauaren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriko 1. apartatuko c) letran ezarritako ekarpen muga ez betetzeagatik.
		2 Epe luzerako aurrezki plana iraungitzea, 1. eta 3. gakoetan zehaztutako bestelako inguruabarretan.
		3 Epe luzerako aurrezki plana azkentzea, hartzailea hil egin delako.
		Epe luzerako aurrezki plana aitortuari dagokion ekitaldian iraungi ez baldin bada, eremu hau hutsik utzi beharko da. Ez da iritziko epe luzerako aurrezki planaren iraungitzea gertatu denik hari erantsitako eskubide ekonomikoak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Arautegian (abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onartuta) ezarritakoaren arabera mobilizatzen badira. Hortaz, “ALTAREN GAKOA” eremuan, zeinak 2 motako erregistroko 110 posizioa baitu, “B” edo “D” jarri baldin bada, eremu hau hutsik egongo da.

Bosgarrena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Agindua, onesten duena 289 eredua finantza kontuen urteko informazio aitortpena elkarrekiko laguntzaren esparruan.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio irailaren 27ko 529/2017 Foru Aginduari:

Bat. Aldatzen da I. eranskina - Egoiliar fiskalen herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, zeinaren arabera, finantza entitateek, elkarrekiko laguntzaren esparruan, finantza kontuen urteko informazio aitortpena (289 eredua) aurkeztu behar duten.

“OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETOAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*)		OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETOAREN 4. ARTIKULUKO B) ETA C) LETRAK (*)
EB	EB AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK	AMACEK ONDORIOAK IZANGO DITUEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK
2023 ETA HURRENGOAK	2023 ETA HURRENGOAK	2023 ETA HURRENGOAK
Alemania Austria Belgika Bulgaria Zipre Kroacia Danimarka (**) Eslovenia Estonia Finlandia Frantzia (**) Grezia Hungaria Irlanda Italia Letonia Lituania Luxemburgo Malta Herbehereak (**) Polonia Portugal Txekiar Errepublika Eslovakiako Errepublika Errumania Suedia	Liechtenstein San Marino Andorra Monako Suitza	Albania Antigua y Barbuda Saudi Arabia Argentina Aruba (Herbehereak). Australia Azerbaián Barbados Belize Bonaire (Herbehereak) Brasil Brunei Darussalam Kanada Txile Txina Kolonbia Korea Costa Rica Curasao (Herbehereak) Dominika Ekuador Ghana Gibraltar (Erresuma Batua) (***) Granada Groenlandia (Danimarka) Guernsey (Erresuma Batua) Hong Kong India

"OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*)		OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUKO B) ETA C) LETRAK (**)
EB	EB AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK	AMACEK ONDORIOAK IZANGO DITUEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK
2023 ETA HURRENGOAK	2023 ETA HURRENGOAK	2023 ETA HURRENGOAK
		Indonesia Islandia Cook Uharteak (Zeelanda Berria) Man Uharteak (Erresuma Batua) Faroe Uharteak (Danimarka) Israel Jamaika Japonia Jersey (Erresuma Batua) Kazakhstan Kenia Libano Macao (Txina) Malasia Maldivak Maroko Maurizio Mexiko Moldavia Montenegro Montserrat Nigeria Niue Norvegia Kaledonia Berria (Frantzia) Zelanda Berria Oman Pakistan Panama Peru Erresuma Batua Errusia Saba (Herbehereak) Samoa Sain Kitts eta Nevis San Eustakio (Herbehereak) San Martin (Herbehereak) Saint Vincent eta Grenadinak Santa Luzia Seychelleak Singapur Hegoafrika Thailandia Turkia Ukraina Uganda Uruguay Vanuatu"

(*) 6/2017 Foru Dekretua, otsailaren 21ekoa, zeinak ezartzen baitu identifikatu beharra dagoela finantza kontu jakin batzuen titulartasuna daukaten edo kontu horiek kontrolatzen dituztenen zerga egoitza eta haien buruzko informazioa eman beharra dagoela elkarrekiko laguntzaren esparruan.

(**) AMAC-en eraginpean izango diren herrialdeen eta jurisdikzioen eta alde biko hitzarmena duten herrialdeen zutabearen agertzen diren lurraldeak izan ezik [Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikulua b) eta c) letrak].

(***) Nazioarteko Akordioa, fiskalitateari eta finantza interesen babesari buruzkoa, Espainiako Erresumaren eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuen artekoa, Gibraltar-i buruzkoa, Madrilen eta Londresen ad referendum egina 2019ko martxoaren 4an.

Bi. Aldatzen da II. eranskina - Herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuak, elkarrekiko laguntzaren esparruan hainbat finantza konturen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta haien inguruko informazioa emateko betebeherra ezartzen duenak, eranskinaren VIII. atalaren D.4 apartatuan aipatutako «Jurisdikzio parte-hartzaitzat» jotzen direnena.

"PARTE HARTZEN DUTEN JURISDIKZIOEN ZERRENDA		
Albania	Grezia	Montserrat
Alemania	Groenlandia (Danimarka)	Nauru
Andorra	Guernsey (Erresuma Batua)	Nigeria
Aingira (Erresuma Batua)	Hong Kong	Niue
Antigua eta Barbuda	Hungria	Norvegia
Saudi Arabia	India	Kaledonia Berria (Frantzia)
Argentina	Indonesia	Zeelanda Berria
Aruba (Herbehereak)	Irlanda	Oman
Australia	Man uhartea (Erresuma Batua)	Herbehereak
Austria	Islandia	Pakistan
Azerbaijan	Caiman uharteak (Erresuma Batua)	Panama
Bahamak	Cook uharteak (Zeelanda Berria)	Peru
Bahrain	Faroe uharteak (Danimarka)	Polonia
Barbados	Marshall uharteak	Portugal
Belgika	Turk eta Caico uharteak (Erresuma Batua)	Qatar
Belize	Birjina uharte britainiarrak (Erresuma Batua)	Erresuma Batua
Bermuda (Erresuma Batua)	Israel	Txekiar Errepublika
Brazil	Italia	Eslovakiar Errepublika
Brunei Darussalam	Jamaika	Errumania
Bulgaria	Japonia	Errusia
Kanada	Jersey (Erresuma Batua)	Samoa
Txile	Kazakhstan	Saint Kitts eta Nevis
Txina	Kenia	San Marino
Zipre	Kuwait	Saint Martin (Herbehereak)
Kolombia	Letonia	Saint Vincent eta Grenadinak
Korea	Libano	Santa Luzia
Costa Rica	Liberia	Seychelleak
Kroacia	Liechtenstein	Singapur
Curasao (Herbehereak)	Lituania	Hegoafrika
Danimarka	Luxemburg	Suedia
Dominica	Macao (Txina)	Suitza
Ekuador	Malaysia	Thailandia
Arabiar Emirerri Batuak	Maldivak	Turkia
Eslovenia	Malta	Ukrania
Estonia	Maroco	Uganda
Finlandia	Maurizio	Uruguay
Frantzia	Mexiko	Vanuatu"
Ghana	Moldavia	
Gibraltar (Erresuma Batua) (*)	Monaco	
Granada	Montenegro	

(*) Nazioarteko Akordioa, fiskalitateari eta finantza interesen babesari buruzkoa, Espainiako Erresumaren eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuen artekoa, Gibraltar-i buruzkoa, Madrilen eta Londresen ad referendum egina 2019ko martxoaren 4an.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren eragiketei aplikatuko zaie lehenengo aldiz, 2022. urteko informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 10a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA